


ERRIRIK ERRI BERRIZ

Gure bazterrak edonun doguz begi-betegarri. Baiña, au zetan esanik bere ez, toki batzuetan obeak, beste batzuetan baiño. Eder ta zoragarri onetako bat, Berriz, Bizkai'ko erri txanbeilin aize ozkirritsua. Etzara iñoiz

antzera Berriz'ko gauzen aurrean. Egia esan, begiko yat erri au, ta gaur beronetaz zerbait eskiñi gura. KARMEL'go irakurle maiteai. Or berriztar bat, gizon argia, orrek esangadust Berriz'tik zer barri.



Gipuzkoa'tik Bizkai alderuntz, Zaldibar'tik zear Durango'runtz etorri? Nai trenean nai autoan egin osterari, benetan atsegiña yatzu Berriz'tik igarotea. Ain dotore agiri da menditontor jagiz inguratua, artalde zuria dirudi baketsu, larrako bedar ezea jaten.

Ni beintzat sarri egon naz zorakor

—Egun on, adiskide. Mesede bat eskatzen dantzut: gure aldiakari KARMEL'erako barri billa nabik, ta gaur zure erriaz jardun nai nik. Bere inguruko mendi, auzune, errika, aleizatxo ta abar maite ditut, eta oneitaz zer-edo-zer jakin gura neuko.

—Berriz lurraldea naikoa zabala dozu: sortaldera Mallabi ta Zaldibar

ditu. eguerdira Elorrio ta sarkalde ta iparraldera Abadiño, Garai ta Ziarrotza; inguruz inguru bost legua badiu. Zabal ta luze menditsua da geiditu. Berriz'ko lurra: Oiz bizkarretik ta Udalaiz ta Anboto aurrezurre. Sakonetan, ibar ta aran zabalak be ba-daukaz, solo ta zelai berde ta emokorrez heterik. Bertoko basezritarrak, oso langille diralako, gari, arto ta ortuaritan zenbat-nai artzen dabe; bai ta sagar, madari, prisku ta beste askotariko arnari edo fruta be.

—Sarritan entzun dot emengo andrak diru-pillo galantak ekarten dabezala bai Eibar'tik, bai Durango'tik.

—Ez egizu, arren, olakorik esan; esne, landara, fruta, lore ta abar, diru asko artzen dabe berriztarrak, baiña ez dantzue olakorik entzun nai. Batean au dala, bestean ori dala, oker aundiak be izaten dabez; eta, intxaur-zaratea danean intxaurra izango dala, esakun zarrak esan arren, enlizka baiño ezta egi. Or zegaitik ez yaken atsegin berriztar andrai diru asko dakarrela esatea.

—Zuen errekek, aberatsak ei dira arraiñetan.

—Zerbait izango da. Nik dakidana ona: domeka ta jaietan zoko guztiak agiri dira arrantzalez beteta; batzuk sare ta butroiz, beste batzuk eskuz uretan sariuta, danak zer-edozeri oratu gura. Batez be iru erreka ditugu emen, bi Oiz'tik datozenak, Arria ta Lariz, ta bat Zaldibar aldetik datorkiguna; irurok, baiña lenengoa ta irugarrena, oso jori ta aberats dira zarho, arrankari, zangurru ta onakotan.

—Zenbat auzune ditu?

—Sei auzune edo kofradi bai be-

intzat: Andikona, Sarria, Eitua, Murgotio, Okango ta San Lorentzo; zein baiño zein politagoak dira; alan be, aintxiñetatik ona, eztabe olako aurrekada aundirik egin. Gaurkoz geien azi ta ugaritu dana, len gauza aundirik etzan Olakueta dogu; azkenengo urteotan etxe barririk asko jaso ditue emen: ziñe-areto eder bat be bai, oraintxe urte bi.

—Eta guztion erdian?

—Bai, auzune bakotxak dauka bere ermita, bere eleizatxoak; baiña guztion erdian eleiz nagusi eder galanta, Juan Bateatzaillari eskiñia, an amabigarren gizaldian jasoan. 1550'garren urtean, barriztau ta nasaitu egin eben eleiz au, Oiz'tik ekarritako are-arritz; luzeran 136 oin daukoz, zabaleran 48 ta 80 gora; arku biko kornua, ta entzute aundiko erretablua; bai ta torre lerdan bat be, 1773'garrenean egria.

—Eta mojen etxea?

—Azken urteotan batez be, Ama Maturana'k mixiño-kutsua ezarri eutsonetik, ospe aundikoa egin da mertzedetar laikaimetxe au. Martin Agirre-sakonak irazi eban, 1550'garren urteruntz; eleizea, 1783'garrenekoa da, ta etxea asko aunditu dabe urteak joan urteak etorri.

—Gizon ospatsurik?

—Ba-dira seta ta zuza leku berrizkoak; oneitan beste tokietan baiño ugari ta gozoago erne oi dira perretxikoak. Bardin Berriz'eu be. Berti izan dira (bai ta izango be), gizon argi, azkar ta garaigoak, beste errietan baiño sarri ta ugariago. Jakitun, eleiz-gizon trebe, musikari, dantzari ta abar, konta ezin ala.

—Eskerrik asko, ta beste bat arte.

O.